

ZIRABA PROIEKTUA, anfibio eta narrastiak oinarri dituen jakintza alor anitzeko ekimena

Ion Garin-Barrio¹, Egoitz Alkorta^{1,2} & Iñaki Sanz-Azkue¹

Zorroagaina 11, Donostia-San Sebastián, igarin@aranzadi.eus & 943466142

Gako-hitzak. Anfibio, narrasti, inbentario herpetologikoa, kudeaketa ekintzak eta unitate didaktikoa.

Aranzadi Zientzia Elkarte. Zorroagako egoitza.

Mundu mailan ornodun talde mehatxatuenak izan arren, anfibio eta narrastiek gizarte mailan duten onarpena oso baxua da. Aurreiritzi okerreztan betetako pentsamoldea aldatu nahian, jakintza alor anitzeko egitasmo bat martxan jarri zuen Aranzadi Zientzia Elkarteak Hernaniko udalerrian, betiere anfibio eta narrastiak ardatz gisa erabiliz. Honela, bioaniztasunaren kontserbazioan proiektu eredugarri batek izan behar dituen alor guztiak jorratu ditu Ziraba proiektuak; anfibio eta narrastien inguruko ikerketa lana sakontzeaz gain, euren mesedetan kudeaketa ekintza desberdinak aurrera eramanez dira. Baina ekintzak ez dira bere horretan geratu, herritarrak (zahar edo gazte) proiektuaren parte izan zitezkeen hainbat dibulgazio ekintza gauzatu dira 2014-2015 urteetan zehar. Txirrita ikastetxeko lehen hezkuntzako umeei hiruhileko batean zehar eduki ezberdinak landu zituzten anfibioen gaia oinarritzat harturik. Gauzatutako ekintzak, ez ziren soilik ingurumen alorrera mugatu, hau da natura zientzien ikasgaira. Zeharka bada ere matematika, plastika edota euskara bezalako gaiak ere landu zituzten irteera bidezko laginketak, aurkezpenak, elkarrizketak, antzerki-lan edota eskulanean bidez. Ikastetxeko 2-12 urte bitarteko 80 haurrek parte hartu zuten ekimenean, eta bizitako esperientzia pilotua baliatu du Aranzadi Zientzia Elkarteak; Anfibio eta hezeguneak ardatz izango dituen Unitate Didaktiko teoriko-praktiko bat diseinatuzko. Dagoeneko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat udalerritako ikastetxe Unitate Didaktikoa lantzeko nahia erakutsi dute. Esperientzia aberasgarri honetan bildutako emaitzak eta gauzatutako ekintzak adieraziko dira Jasangarritasunerako Hezkuntzarako Euskadiko IV. Jardunaldietan.